

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Senpere



Aurkibidea

Udalerria: Senpere

Sarrera



Senpere Lapurdiko udalerririk zabalenenetarikoa da azalerari dagokionez eta herrialdeko barnealdean eta Uztaritzeko Kantonamenduan eta Lapurdi Erdialdea izeneko eskualdean dago kokaturik. Udalerri mugakide hauek ditu: Ahetze eta Arrangoitze iparraldean; Donibane Lohizune eta Azkaine mendebaldean; Sara, Urdazubi eta Zugarramurdi (azken biak Nafarroa Garaian) hegoaldean; eta, Uztaritze, Zuraide eta Ainhua ekialdean. Hiru ibai aipagarrik gurutzatzen dute udalerria, beraien ibaiadarrekin batera: Urdazuri, Basarun erreka eta Uhabiak. Horretaz gain, herrigune nagusitik ekialdera Senpereko aintzira dago, Herri Urrats iragaiten den lekua. Senperetik okzitanieraz Sent Pèr de Nivelà eta aragoieraz San Per d'Ibarra izenak ditu.

- **Biztanleak:** 5.865
- **Euskaldunak:** %20,19

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **14**
- Zintak: **15**
- Pasarteak: **0**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Agustin Mendizabalen fondoak
- Anai Artea elkartearen historia
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- IKER taldea

Hizlariak



Jean Noel Bessonart (1957)

Kantaria. [Martxel Brave](#) eta [Panpi Lazkano](#) kantariekin batera egindako elkarrizketa.

Lucie Brave Luxi (1926)



Senpereko Amotz auzoan sortu zen 1926ko apirilaren 30ean. Bertan hazi eta eskolatu ondoren serora egin zen. Elkarrizketa garaian Hiriburun bizi zen eta oraindik ere gauza anitz egiten zituen: erretira etxe eta hartzaindegiaren arteko harremanetaz arduratzen zen, bertzeak bertze.



Martxel Brave

Kantaria. Besteak beste, Arrantzaleak taldearen 'Azken Txanpa' diskoan parte hartu zuen. [Jean Noel Bessonart](#) eta [Panpi Lazkano](#) kantariekin batera egindako elkarrizketa.

SEN-006 Hizlari ezezaguna (1953)

SEN-007 Hizlari ezezaguna (1944)

SEN-008 Hizlari ezezaguna (1951)

SEN-009 Hizlari ezezaguna (1949)

Jean Pierre (1959)

Senperen jaioa, 3 anaiatan zaharrena. Aitak gustuko zuen laborantza eta umetan behi-zain egotea egokitzen zitzaion. Alaba Mirentxuk grabazioa egin zion Euskal Herriko Unibertsitateko "Dialektologia" ikasgairako.

Pierre Karrikaburu *Motxo* (1927-2011)

Motxoa baserriko nagusia, denek `Motxo´ erraten zioten Senperen. Laborantzaz bizi izan zen beti, eta lan egiteko moldeak aldatzen ikusi zituen, urteak joan ahala. Bigarren Mundu Gerraren inguruko kontuez ere mintzatu zen elkarriketan, besteak beste, Miarritze bonbardatua izan zenekoa. Horrez gain, Senpere nola aldatu den ez zitzaiola gustatzen azaldu zigun, lur gehiegi saldu baita, kanpoko jendeari, gainera, senpertar gazteei herrian egoteko aukerari oztopoak sortuz.



Panpi Lazkano

Kantaria. [Martxel Brave](#) eta [Jean Noel Bessonart](#) kantariekin batera egindako elkarriketa.

Marie Pierre



Mixel Mendiburu (1944)

Senperen sortua 1944an. Zortzi haurride izan ziren.

Paxkal Mendiburu (1937-2019)

Sorho Gainan 1995ean egindako elkarriketa.

Josep Zuburu (1933-2018)



Bixente Baita etxeko nagusia. Laborantzaz eta argintzaz bizi izan zen, eta tresneriari biziki atxikia. Hiztegi aberasgarria zuen eskaintzeko. Naturarekin ere bere sinesteak zituen, batez ere ilargiarekin eta izarrekin. Alemanen okupazioaz ere mintzatu zen elkarriketan. Senpereko zinegotzia izan zen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com